

FILOSOFIA OLINPIADA

2026

LAURO IKASTOLA

Testu Bilduma Ofiziala

Gaia - Eromena

Edizio lana - Aimar Pipaon

AURKIBIDEA

Like bat gure arimaren truke?

Ama, mundua beste modu batean ikusteagatik zoro deitzen didate

Diskriminatuen jakinduriaren itsutasuna

Eromenaren aldeko defentsa

Beste ikuspuntu bat

La cuerda de la locura

Índice de la teoría gráfica de la locura

Arintasunaren erotasuna

LIKE BAT GURE ARIMAREN TRUKE?

EGILEA: OLAIA OLIVAS

Miguel de Unamunoren testuak hausnarketa sakon bat uzten digu: nor da eroagoa? Bere ametsen alde borrokatzen duena ala ezer egin gabe besteei barre egiten diona? Unamunok Don Quijote erabiltzen du adibide bezala, baina gaur egun, 17 urte ditudala, uste dut Quijote haiek galdu egin direla, ez daude iada gure gizartean. Gaur egun, gure eromena ez da mundua aldatzeko nahia izatea, gure eromena mugikorraren pantailaren atzean onarpen bilatzea da. Pantailak bihurtu dira gure ispilu, eta ispilu hauek hautsita daude.

Nire ustez, gaur egungo arazorik handiena autoestimua hauskortasuna da. Unamunok dioen bezala, inguruko iritziak gure bizitza baldintzatzen dute. Argazki bat igotzen dugunean, ez dugu egiten momentua gordetzeko, "ni hemen nago eta begira zein ondo nagoen" esateko baizik. Gure balioa ez dago guran, besteek ematen diguten "like" kopuruan baizik. Hori da gure belaunaldiaren eromena: gure zoriontasuna ezezagun baten gustuen mende uztea. "Like"-a jasotzen ez dugunean, gure burua gutxiesten dugu. Nola liteke gure arima pantaila baten mende ustea?

Gainera, sare sozialek zoriontasun faltsu bat inposatzen digute. Unamunoren testuan jendeak barre egiten dio ongi egiten saiatzen denari. Gaur egun, barre hori isiltasuna da, edo "perfektua" ez denari burla egitea. Filtroak erabiltzen ditugu gure akatsak estaltzeko, baina prozesu horretan, ez gara ohartzen gure nortasuna galtzen ari garela. Badirudi triste egotea debekatuta dagoela, eta "eroa" dela bere burua den bezala erakusten duena. Benetako eromena ez al da mundu guztiari gustatu nahi izatea gure burua gustatu beharrean?

Harremanen gaia ere oso garrantzitsua da. Gaur egun, harreman toxikoak sareen bidez elikatzen dira. Obsesio bat dugu; nork ikusi du nire argazkia? zergatik ez dit erantzun? Zentzua galtzen dugu, ezin ditugun kontrolatu akzio horiengatik. Lehen, eroak mundura ezagutzera joaten ziren ametsen bila orain, gure eromena logelan geratzea da, pantailari begira, besteek guri buruz zer pentsatzen duten asmatzen saiatzen garen bitartean.

Ondorioz, uste dut Unamunoren mezua inoiz baino beharrezkoagoa dela. Beharbada, gaur egun "eroa" izatea da sare sozialetatik deskonektatzeko ausardia izatea. Eroa izatea da "like"-ik jaso ez arren, geure buruari ispiluan begiratu eta maite dugula esatea. Don Quijotek bere bidea jarraitzen zuen munduak barre egin arren, guk ere gure bidea aurkitu behar dugu, mundu digitalaren balidaziorik gabekoa. Azken finean, zentzua duena ez da asko gustatzea, norbera izatea baizik.




AMA, MUNDUA BESTE MODU BATEAN IKUSTEAGATIK ZORO DEITZEN DIDATE

EGILEA: EUNATE KRUTXAGA

Umetan jolas-orduan topatutako barraskilo batzuekin jolasten ari ginela lagun batek proposatu zuen ikasgelara itzuli aurretik barraskiloak zapaldu behar genituela. Nik izan ezik bertan geunden ume guztiek proposamen horri baiezkoa eman zioten. Hori izan zen ero deitu ninduten lehenengo aldia. Arraroa iruditu zitzaidan, nik eroak arazo mentalak zituztenak zirela uste bainuen, eta nik ez nuelako horrelakorik. Horregatik, ikastolatik etxera heltzean hiztegian begiratu nuen ero hitzaren esanahia. Hau da topatu nuena: zentzua galdu duena. Nik ez nuen zentzua galdu; are gehiago, zentzuz jokatzeko ari nintzela uste nuen, beraz, ez nuen ulertu ero deitzearen arrazoia.

Nagusitzen joan naizen heinean konturatu naiz gure gizartean bi motatako "eroak" egon arren, guztiak talde berean sailkatzen direla, eroen taldea. Nik, ordea, gehiengoak erabaki bezala talde horretakoei "ero" deitu behar bazaie, esan bezala, bi taldetan banatuko nituzke: eromen suntsitzailea dutenak (arrazoia deuseztatzen duena, hau da, hiztegiko esanahia jarraitzen dutenak) eta eromen idealista edo morala dutenak (On Kixote sartuko litzateke talde horretan). Hala ere, zein desberdintasun geratzen da bi talde horien artean, gizarteak biak etiketa beraren azpian, "zoro" izenpean, sailkatzen baditu?



Zoramena historian zehar gai garrantzitsua izan da, beti nahi izan delako eroak zeintzuk diren definitu. Platonentzat, zoramena ez da beti zerbait negatiboa. Phaidros dialogoan adierazten duen bezala, badago arrazoia suntsitzen duen zoramena, baina baita zoramen jainkotiarra edo goragokoa ere (mania deituri-koa). Azken hori ez da gaitz bat, gizakia bere eguneroko mugen gainetik eramaten duen egoera baizik. Platonen ustez, gizakiak gauza handienak -poesia, egia- rekiko intuizioa, maitasun sakona edo justiziaren aldeko konpromisoa- ez ditu beti arrazoimen hotzaren bidez lortzen, baizik eta halako "zoramen" baten bidez. Bereizketa horrek argi uzten du zoramen mota guztiak ezin direla modu berean epaitu. Izan ere, Platonen arabera, zoramen jainkotiarra zentzuzkoa baino baliotsuagoa izan daiteke, gizarteari zentzua eta norabidea ematen dizkiolako. Ideia hori zuzenean lotzen da On Kixoteren kasuarekin, eta Platonen ikuspegitik, On Kixoteren jokabidea ez litzateke benetako zoramena, baizik eta gizakia moral eta espiritualki goratzen duen zoramen mota bat.

Gure gizarteak hiztegian zoroa izatearen definizioa izan arren, ikuspegi nagusia dutenek sarritan ero deitzen dio gizartearen ikuspegi desberdina duten pertso- nei, eta ez arrazoia galdu dutenei. Hori da niri gertatu zitzaidana; orduan ez nintzen horretaz jabetu, baina urteekin ulertu dut une hartan ez zidatela zen- tzua falta zitzaidalako "ero" deitu, baizik eta haien zentzua partekatu ez nue- lako. Hori da On Kixoteri gertatu zitzaiona. On Kixotek ez zuen mundua oker ikusten; gainerakoek onartu zuten munduari uko egiten zion, eta horregatik erotzat jo zuten. Hala ere, bere "eromena" ez zen arrazoia galtzearen ondorio, baizik eta justiziaren, ongiaren eta ahulen defentsaren aldeko konpromiso sa- kon baten emaitza izan zen. Horregatik, esan daiteke On Kixoteren kasuan, gehiengoak berari zoro deitzeagatik agerian geratzen dela benetako arazoa ez dela haren ikuspegia, baizik eta gizarteak berak ideal horiek baztertu izanaren ondorioz sortzen den hutsunea.

Ildo beretik, Kahlil Gibran poeta otomandarrak adierazten duen bezala, «Nire zoramenean askatasuna eta segurtasuna topatu ditut; bakardadearen askatasuna eta besteek ulertuko ez nautenaren segurtasuna», zoramenak askotan askatasun mota berezi bat eskaintzen du. Ikuspegi nagusitik aldentzen den pertsona bakardadean bizi izan ohi da, baina bakardade horrek askatasuna ere ekar dezake: norberak bere printzipioen arabera jarduteko askatasuna, besteen onespeneren beharrik gabe. Aldi berean, "ulertuak ez izatearen segurtasuna" aipatzen du Gibranek; izan ere, gizarteak ulertzen ez duena erotasuntzat etiketatzen da, nahiago dugulako azalpenik ez bilatu. Zentzu horretan, zoramena babes bihurtzen da, besteen epaiketatik urruntzen duen babeslekua. Ideia hori On Kixoteren kasuan ere ikus daiteke: gainerakoek barregarri edo zoro ikusten duten bitartean, berak askatasun osoz jarraitzen dio bere ideal moralari, ulertua izateko premiarik gabe. Horrela, zoramena ez da soilik bazterketa iturri, baizik eta askatasun eta sendotasun existentzialaren adierazpen bihur daiteke.

Laburbilduz, nik azpimarratu nahiko nuke gure gizarteak eromena pertsonak epaitzeko erabiltzen duela, nahiz eta, arestian aipatu bezala, arrazoi falta ez izan. Erotasun guztia ez da miresgarria, eta nahiz eta horrela deitu, idealismo edo moral guztia ez da zoramena. On Kixote ongiaren alde borrokatzeagatik zorotzat hartu zuten. Ni barraskilo batzuen bizitzaren alde egiteagatik zorotzat hartu ninduten. Irizpide horiei jarraituz, edozein ekintza moral egiten duena zorotzat hartuko da. Ondorioztatzeko, zoroa gizarteak ukatutako bere idealen arabera bizitzera ausartzen dena baldin bada, ni erotuta nago, zu?

DISKRIMINATUEN JAKINDURIAREN ITSUTASUNA

EGILEA: MIKEL BERGARA

Eromena latinetik laucus hitzetik dator eta okerra edo akastuna esan nahi du. Eroa hitza hiztegieta definitua egon arren, filosofo eta pentsalarientzako esaldi batean definitu ez daitekeen terminoa da eromena. Eromena hainbat esparrutan murgiltzen den hitza da. Hortaz, eromenaren esparruguztiak biltzen dituen definizio unibertsala lortzea zailtasun asko dakartza.

Don Quijotek eroak defendatzen ditu, behartsuak laguntzen eta zalpaltzaileen aurka egiten dituen pertsona gisa direla. Gainera, arrazoia duten gizakiak burla eta barre egiten diote eroek aldarrikatzen dutenarekin. Hala ere, arrazoidunek eroak ameslaritzat eta harrotzat hartzen dituzte.

Alde batetik, nabaria izan da erotasunaren balioa gizartearekin batera aldatzen joan dela. Historian zehar, erotzat hartu diren hainbat pertsona gaur egun gizaki jakintsu moduan deskribatzen ditugu. Esate baterako, Sokratesek bultzatutako epistemologia eta balioek eromenarekin harreman zuten beraren garaian. Gaur egun aldiz, filosofiaren aitaren moduan izendatzen dugu. Beraz, gaur egungo erotasuna etorkizunaren jakintasuna izango da? Jakintasuna eta eromena elkarren ondoan daude. Gainera, jakintasunaren eta eromenaren harteko harreman zuzena Nietzscherengan ikusi dezakegu. Filosofo alemanariak pentsalari famatua izatetik ero izatera pasatu zen buru kolapsoak markatuz beraren azken urteetan. Horrez gain, beraren arabera eromena defendatzen zuen burugabekiaren aurrean. Hau da, hobe ero izatea gizarteak ezarritako auruekin bizitzea baino. Literaturan ere nabaria izan da eroen jakinduriaren aldarrikapena, Shakespearek pertsonai eroak eta marginatuak erabiltzen zituen "benetako egia" adierazteko.

Bestetik, erotasunak arauak apurtu nahi ditu gizartearen hobekuntzarako eta kolektibismoa aldarrikatzeko. Hala ere, arauak apurtu nahi izateak gizarte kaotiko eta ero batera bideratuko gaitu. Gizartearen arauak apurtzen baditugu eroen utopiara heltzeko, gizartea utopiko hori finkatzeko arauak beharrezkoak izango dira eta etorkizunen batean beste ero batzuek arau utopiko hauek berriz apurtu nahi izango dituzte auradirik gabeko gizarte ziniko eta ero baten eroriz. Gainera, onarpena funtsezkoa gizarte kritiko bat ezartzeko ezin ditzakegu arauak kritikatu arauak obeditzen ez baditugu. Eroek adierazitako fedeitsuak gizartearen hobekuntzarako oztopo handiak dira.

Laburbilduz, gizarteak ezin dezake eromena saihestu. Eroak gizartearen parte dira eta diskrimazio sozialetatik atera behar dira. Eroaren jakintasunak utopiara bideratu gaitzake hauen proposamenak entzuten baditugu. Izan ere, gizarte moduan ezin dezakegu eromena erromantizatu. Hauek duten fedeitsuak guri ere itsutuko gaituelako.



EROMENAREN ALDEKO DEFENTSA

EGILEA: MIKEL ARRIOLA


Gaur egungo gizartean, eromena oso begi txarrez ikusten da eta gauza askotarako erabiltzen da. Trump definitzetik klima definitzera. Hitz honen etimologiari buruz ez dago ezer euskaraz eta hortaz gaztelaniaz "loco" hitzaren inguruan arakatu behar izan dut. "Loco" hitzaren jatorriari buruz bi teoria nagusi daude. Lehenak arabiarretik datorrela esaten du, tentel hitzetik. Bigarren teoriak, aldiz, latinetik datorrela proposatzen du, lekua hitzetik (eroa lekuz kanpo dagoenaren esanahiarekin). Historian zehar esanahia nabari aldatu da, Cervantesen On Kixote liburuan, adibidez, Kixote zoro moduan aurkezten da baina bere hitzetan ikus daiteke bere helburua ongia egitea dela eta arrazoi honengatik ingurukoek burla egiten diotela. Ideia hau jarraitu izan du mendetan zehar gaur egunera arte. Baina, jazarpena sufritzeko arrazoia izaten jarraitu beharko luke eromenak?

Eromenari buruz hitz egin baino lehen nire definizioa aurkeztu beharko nuke, "eromena" arrazoitik kanpo egotean definitzen dut nik eta horren gainean hitz egingo dut baina definizioa aldatu daiteke testuinguruaren arabera. Hasierako galderara itzuliz, erantzun azkarra ezetz da, jazarpena maltzurkerian eta bote-rea lortzean oinarrituta dagoelako. Hala eta guztiz ere, eromena bizitzeko beharrezkoa da eta eromenari barre egitea bizitzeko gogoari barre egitea da. Bizitzan gehien merezi duten gauzak ezin direla arrazionalki azaldu da honen arrazoia. Gainera, saiatzeak sufrimendura eramaten gaitu. Adibidez, maitasunak ez dauka arrazoirik, biologoek esan dezakete maitasuna erreproduzitzeko balio duen bulkada baino ez dela, baina, kasu horretan, amama maitatzeko bulkada nondik dator? Epistemologiaren kanpo dago eta barnean sartzeak bizitza zaildu baino ez luke egingo. Maitatzea eromena da, argi eta garbi, eta nork esango luke bizitzak merezi duela maitasunik gabe? Bizitzak eromenaren beharra dauka eta eromenari barre egiteak, eromena baztertzeak, bizitzen merezi duen bizitza batetik aldentzen gaitu.

Eromena defendatzeko beste arrazoi garrantzitsu bat esperantza eroa dela da. Esperantzarik gabe Paleolitikoan egongo ginateke, landareak hazteko esperantza gabe nork landatuko lituzke guztiok jaten ditugun elikagaiak? Honetaz aparte, esperantza aurrera egiteko azkenengo arrazoia izan daiteke, guztia galduta dagoenean hobetzeko esperantzak atera gaitzake zulotik. Baina, esperantzak ez du zertan pertsona indibidualak soilik aldatu, modu kolektiboan ere aldatu dezake mundua. Hasiera batean ilustratuen ideiak zoroen ideiak izango balira moduan ikusten zituzten noble eta errege-erreginek, baina denboraren poderioz eta jendearen indarrez mundua aldatu dute; demokrazia, botere banaketa eta kapitalismoa ezarriz. Eta ez hori bakarrik, esperantzak eragin dezake arrazionalki galduta dauden kausak babestea eta hasieran ezinezkoa iruditu arren kausa galdu hori irabaztea. Kausa galdu horietako bat utopia bilatzearena izan liteke. Utopia bilatzea eromena da, sistemak "arrazionalki" ero moduan ikusiko zaituelako. Erotzat hartzea ez du etsipenik sortu behar gudan, utopia perfektua eta eroena lortu ez arren mundua hobetzeko eta erotzeko balio deza-keelako. Eduardo Galeanok esan bezala "Utopia zerumugan dago. Bi urrats egin, bi urrats urrundu, eta ostertza hamar urrats harago doa. Orduan, zertarako balio du utopiak? Horretarako, ibiltzeko balio du." Ibili behar dugu erori arren, jausten ikasten delako oinez eta geldi egoteak ez digulako inora eramaten. Platonen haitzuloaren mitoari helduz, haitzulo arrazionaletik irteten lagundu gaitzake eta, horrela, mundu hobe bat lortzen lagundu. Honetaz gain, aurrera ibiliz beste batzuk atzera botatzeko arriskua murrizten dugu eta distopia usatzen dugu. Baina kontuz ibili! Eromena autonomoa izan behar da, boteretsuek eromenera eramaten bagaituzte Alemania nazian edo beste hainbat sarraskitan gertatutakoa errepikatu zitekeen. Kontu handiko eroak izan behar gara, etikoki arduratsuak. Eromen kolektiboak etika zapaltzen du eta arrisku eta min handiko egoeratarara eramaten gaitu, kontuz!

Honek, eromen mota desberdinen inguruan pentsarazten du. Lehenik eta behin, eromena polarizatzeko joera dago, zuri edo beltz ikusteko. Alde batetik, eromena erromantizatzeko eta jenialtasunarekin erlazionatzeko eta, beste aldetik, arazo psikikoa duten pertsonak balira moduan ikusteko. Ni ez naiz psikiatra eta, hortaz, ez dakin zein den eromenaren definizio klinikoa. Baina nahiko argi daukat, bizitzan guztiarekin gertatzen den moduan, grisak daudela. Gainera, eromen kolore hori alda daiteke denboraren eta egoeraren poderioz, ez du zertan finkoa eta mugiezina izan. Askotan eromena jenialtasunarekin soilik lotzeko ohitura daukagu baina eromena askotan sufrimenduarekin batera dator. Desberdina izatearekin batera datozen zalantzak, bakoitzaren buruan konfiantzarik ez izatearen arazoa, etab. Sufrimendu honi aurre egiteko estrategia eromena izan daiteke. Aldiz, askotan, sufrimendua sor dezake eta babesteko modu bakarra eromena bada ziklo arriskutsu batean sar gaitzake. Azken kasu hau, nire uste apalean, bereziki kaltegarria da jasaten duen pertsonarentzat.

Laburbilduz, eromena beharrezkoa dela esango nuke bizitza duina bizi nahi duen edonorentzat. Hortaz, eroaz barre egiteak ez du zentsurik eta egiten duen edonork birpentsatu beharko lituzke dituen balore eta ideiak. Aurrerapen pila eroen bitartez lortu izan dira eta, hortaz, haietaz barre egin beharrean babestu eta zaindu egin beharko genituzke. Eroak babestuz, guztiok babesten gara guztiok daukagulako eromen puntu bat oso baliotsua. Hala eta guztiz ere, zaindu behar dugu gure burua eta, Kanten heldutasunaren antzera, ero autonomoak izan behar gara.



BESTE IKUSPUNTU BAT

EGILEA: ANDER SOTO

Erotasuna historikoki arrazoimenaren galera gisa ulertu izan da, errealitatek urruntzen duen zerbait bezala. Hala ere, filosofiak eta literaturak erakutsi dute eroaren irudia baliagarria izan daitekeela gizartearen baliokak eta arauak zalantzan jartzeko. Don Quijote de la Mancha bezalako liburuetan, eroaren figurak errealitatearen, arrazoimenaren eta askatasunaren arteko harremani buruz hausnartzera gonbidatzen zaitu. Horren aurrean, galdera nagusi bat sortzen da: eroaren bidez arrazoia galtzen al da, ala mundua ulertzeko beste modu bat agertzen da?

Don Quijotek esaten du mundu guztiak erotaz hartzen duela, baina benetan berak lagundu nahi du, eta norbaitek erotaz hartzekotan, aldi berean esaten dago laguntza eskaintzea erotasun bat dela. Hau esaten dutenek, eromena eta arrazoia guztiz banatzen dute. Eromenaren barruan esaten dute hauek ametsetan oinarritzen direla eta harroak direla eta laguntza behar dutela. Nire ustez inork ezin du jakin ia beste pertsona batek laguntza behar duen, norberak aitortu behar du eta bere egoeraz pentsatu. Hau eginez, garrantzia ematen diozu arazoiari eta hobeto sentitzeko lehenengo pausua da. Hau ez baduzu egiten, ez zara gai izango aitortzeko arazo bat duzula eta laguntza behar duzula, eta honek hobeto sentitzeko prozesua geldiarazten du.



Pertsona batek erotzat hartzen badu beste bat, beste pertsona hori eroa dagoela aitortu ez badu, beste pertsona epaitu duenak erotzat hartzen dut. Eromena testuinguruaren arabera asko aldatuko luke. Adibidez, imagina hegazkin istripu bat daukazula eta zu bakarrik uharte batean geratzen zarela. Kasu honetan pelikuletan beti ikusi da arroka bati aurpegi bat marrazten diotela eta berarekin hitz-egiten dutela. Kanpotik ikusita iruditu ahal da tipo hori eroa dagoela baina zu egoera berdinean egongo bazina seguraski berdina egingo zenuke. Eromena testuinguruaren arabera aldatzen da, gizarteak inposatutako arauen arabera, hau kontuan izanda, aurretiaz aipatutakoa (bakoitzak aitortu behar duela erotuta dagoela) hare zentzu gehiago hartzen du. Eromenarik gabeko bizitza ez litzateke bizitza aske bat izango, eroek askatasuna adierazten dutelako eta eroak ez dauden pertsonak obedienteak dira, ez dute pentsamendu kritikorik. Ezin da gizarte batean bizi nun ez dagoen pentsamendu kritikorik.

Eroa izatea ez du esan nahi ez duzunik arrazoia; milaka zientzialari daude erotzat hartzen dutenak haien burua, baina haien teoriak edo teoremak ondo daude. Hauek askotan ero bihurtzen dire noumenoak ulrtzen zaiatzen direlako. Noumenoak, ulertu edo ezagutu ezin ditugun ideiak dira, eta hauek ulertzen saiatzen bagara normala da eromenean jaustea.

Ondorio gisa, ikus daiteke erotasuna ezin dela modu sinplista batean ulertu. Historian zehar, gizarteak erotasuna baztertu du, beldurrarekin eta kontrolarekin lotu izan duelako, baina bai filosofiak bai literaturak erakutsi digute eroaren figurak bestelako funtzio bat ere baduela, gizartearen ispilu kritikoa izatea. Don Quijoteren kasuan argi ikusten da nola ero moduan etiketatutako pertsona baten, hain zuzen ere, inguruko hipokresia eta balio faltsuak agerian uzten dituen. Berak mundua beste ikuspegi batetik ulertzen du, eta ikuspegi hori ez dator bat garaiko arau sozialekin, horregatik arriskutsua da eta aldi berean, balioetsua. Eromena, beraz, ez da beti arrazoia galtzea, baizik eta askotan arrazoia beste norabide batean erabiltzea. Gizarteak ezarritako logikatik ateratzen den pentsamendua automatikoki erotzat hartzen da, baina horrek ez du esan nahi pentsamendu hori oreka dagoenik. Aurretik, aurrerapen handienak egin dituzten pertsona askok hasieran erotzat hartu ziren, euren ideiak garaiko ulermenetik harago zihoazelako. Horrek erakusten du arrazoia ez dela egitura itxi eta aldaezin bat, baizik eta testuinguruaren, balioen eta esperientzien arabera.

Bestalde, testuinguruaren garrantzia funtsezkoa da erotasuna epaitzerakoan. Egoera kritikoek, bakardadeak edo sufrimenduak jokabide "arraroak" sortzen dituzte, baina jokabide horiek askotan bizirauteko estrategiak besterik ez dira. Kanpotik epaitzea erraza da, baina barrutik bizitzea zaila da. Horregatik, norbait erotzat hartzea, pertsona horrek bere burua horrela ikusten ez badu, bostere-ariketa bat izan daiteke, bestea isilarazteko edo gutxiesteko modu bat. Azken finean, erotasunak eta arrazoimenak ez dute zertan aurkariak izan. Bien arteko muga fina da, eta muga horretan sortzen dira galdera garrantzitsuena. Eromenarik gabeko gizarte bat gizarte itxia eta obediente izango litzateke, arauak zalantzan jartzen ez dituen. Horregatik, eroaren figura beharrezkoa da. Deserosoa izan ahal da arauak hausten dituelako eta mundua beste modu batean ikustera behartzen gaituelako. Agian, galdera ez da ea eroaren bidez arrazoia galtzen den, baizik eta ea arrazoia mantentzeko, batzutan, pixka bat ero izan behar dugun.

LA CUERDA DE LA LOCURA

EGILEA: JUNE MACARENO

Si hay algo que caracteriza a la literatura de la antigua Grecia, es la obsesión por el sino que los autores de dicha etapa mostraban en sus obras. Sísifo, que fue el rey de Corinto, intentó en dos ocasiones librarse del reino de Hades—conocido como el inframundo—, y esto fue lo que hizo que su hado fuese levantar una roca una y otra vez, como si una tensa cuerda estuviese acechando su castigo, su locura.

Lo que me fascina de los mitos griegos, es que aun habiendo pasado centenares de siglos, estos siguen siendo el reflejo de los tiempos actuales. Y es que, hoy en día, las calles son transitadas simultáneamente por miles de personas, cada una de ellas con un paso diferente; a veces agotado, otras acelerado. Cada paso contiene una identidad que desde el auge de la industria —y por ende de las ciudades—, parece ser anónima. Tiempos antes de la Revolución Industrial, los individuos eran quienes formaban la sociedad; ahora, en cambio, esta es quien ruega la convivencia en una sociedad impersonal.

Todos tenemos una piedra que levantar o un camino por recorrer, que citando el título de una canción de Extremoduro, a veces se trata de una mera <<locura transitoria>>. Hace dos días, acudí a un evento en el que Garazi Muguruza, psicoanalista lacaniana, expresó que «el loco, al sentir un vacío intenta construir un edificio para completar dicho agujero». En este caso, y bajo el contexto de la cita de Unamuno dada, el vacío que el individuo puede llegar a observar, es el no encontrar sentido coherente a la vida, al camino. Ese es nuestro sino, nuestra piedra, y hay quienes deciden ser la cuerda tensa ordenando a las masas, y otros en cambio, los que intentan impedir esa injusticia. Pero aquí la cuestión es, ¿quién tiene el control, por qué lo tiene, y acaso ese miedo a ese vacío hace que teorías como las de Kant sean meras utopías en la actualidad?

Para comenzar, cabe recalcar que desde el auge de las pantallas, el distópico Gran Hermano, que George Orwell caracterizó en 1984, es el protagonista de nuestro día a día. Y es que, además de estar rodeados de cámaras, nos hemos convertido en sumisos de unos algoritmos que ciertos líderes políticos emplean para camelar a las masas. Sin embargo, hay individuos que son inherentes a luchar contra el orden impuesto, pero no por ello tienen porqué padecer esa locura que Cervantes narra.

Esto último, se ha visto en la historia de la literatura, pues esos escritores incomprendidos como lo fue Eurípides en el teatro antiguo griego, décadas más tarde han pasado de redactar una historia a ser ellos la historia en este caso de los comienzos del teatro. Asimismo, me pregunto cómo acaso se puede justificar el asesinato de cientos de mujeres por no seguir el dogma impuesto por una institución, como lo es la Iglesia. La Iglesia fue quien impulsó la inquisición contra todo aquel que se opusiese a sus ideales cristianos, en este caso, las brujas de Zugarramurdi. La Iglesia justificó dichos asesinatos afirmando que aquellas mujeres hacían un trato con el Diablo. Sin embargo, no había certeza en dichas afirmaciones, lo que al igual que el teatro incomprendido de Eurípides -nos lleva a cuestionarnos la cordura de los colectivos que, en tiempos pasados o actuales, alteran a diario nuestro algoritmo.

Por otro lado, ese vacío del que hablábamos antes, se acentúa ante el sistema capitalista. El deseo de completar ese vacío -a veces incluso de hallar una inexistente perfección en todo lo que ansiamos-, no parece saciarse en los atracos de compras diarias. Ligado a esto último, ese horror vacui puede derivar en un delirio que hace al loco -si es que acaso podemos definir qué es serlo- no sentirse solo en esa lucha de pura incertidumbre. Ese delirio puede transformarse en íntimas palabras, como las de Kafka bajo su tinta, que hacen que seamos personajes secundarios de lo que no podemos responder, ¿quiénes somos? y su catarsis, la frustración.

Ante esta situación, cuestionamos la teoría de Kant. ¿Cómo ser personas maduras si hasta el propio lenguaje nos lo han impuesto? Podemos obedecer, y hacer una crítica al menos, en países donde hay libertad de expresión - pero, ¿cómo hacerla en esta sociedad que necesita una respuesta inmediata? ¿Acaso eso no sería una utopía? Silvio Rodríguez, en su canción *Locuras*, decía que «Hay locuras sin nombre / Sin fecha, sin cura / Que no vale la pena curar», y es que puede que haya cuestiones que no tienen respuesta, y hay que dejar ese horror vacui de una vez por todas atrás.

En conclusión, en un lugar del mundo cuyo paso no podemos definir, hay una cuerda tensa que cree estar en lo cierto, que cree incorrecto otro hado que no sea el de su poder. Antonio Machado en uno de sus versos decía que «Caminate no hay camino, se hace camino al andar», y puede que yo sea una lunática por mis pensamientos que dejo exiliados en estas páginas -como lo hacía Kafka con los suyos, y puede que mi sino sea no hallar respuesta alguna del porqué de esas luchas no pacíficas entre quienes quieren alzar su bandera antes que su pensamiento crítico. De todos modos, en esta locura transitoria todavía nos queda mucho por andar.



ÍNDICE DE LA TEORÍA GRÁFICA DE LA LOCURA

EGILEA: PERU LASKURAIN

Un medidor de locura podría ser cuántas veces uno escribe, borra y vuelve a escribir el inicio de un texto. No tiene por qué ser una carta de amor; no sabría decirte cuántas veces he reescrito el inicio de este texto (el cual es una sandez). Lo último que querría hacer es criticar a este tipo de gente, ya que sería hipócrita por mi parte cerrar el saco sin mí dentro, y aunque tienda a criticarme a mí mismo, no suele ser por reescribir. Más allá en términos de locura, están los que no reescriben el inicio de sus textos, y se lanzan sin mirar atrás.

Habiendo empezado así el texto, por fin, y dejando en este notables rasgos de esta tan aclamada locura, omnipresente y especialmente importante el día de hoy por ser el rompecabezas que pretendemos, o no, resolver, indaguemos en ella. No mucho más tarde de saber que la locura sería el tema a tocar en este texto, me vino a la cabeza un gráfico, sí, donde el eje X es el Tiempo Presente, este como una medida del transcurso del tiempo en el presente en minutos, horas... lo que convenga. Asimismo, el eje Y mide la distancia en la que nuestros pensamientos se separan del momento presente (eje X), llamemos a este Lejanía del Pensamiento.

Puede que esta idea de definir la locura con un gráfico sea difícil de digerir, al menos al probarla por primera vez, pero intentémoslo. El gráfico es el soporte visual que acompaña mi explicación de la locura, pero me parece que, jugando con los límites de la matemática, puede cumplir su función. Todavía dudo de si Pitágoras aceptaría este nuevo método matemático para explicar la vida, aun siendo este un fiel defensor de utilizar las matemáticas como intermediario.

Siguiendo con el gráfico, indudablemente hay una función que se aferra al eje X: el paso del tiempo en el presente, una locomotora imparable, de la cual no quieres quedarte atrapado en sus raíces. Por otra parte, tenemos otra función la cual representa nuestros pensamientos. Esta función, al contrario de la otra, goza de un libre albedrío. Hallar la x de esta función sería ardua tarea, ya que esta puede dibujar círculos, por ejemplo, lo que para mí representaría carcomerse sobre un tema para, al de un tiempo, volver al mismo punto. También puede no volver al mismo punto, ya que ese círculo cerrado herméticamente, depende del punto de vista que le brindes, puede convertirse en tirabuzón.

Cuando por primera vez creé esta imagen me vino a la cabeza un pelo rizado, lo que se traduciría en un despegué de los pensamientos a un lugar más lejano que el presente, para después volver al mismo lugar, o no, depende del ánimo de ese día normalmente, lo que, hurgando en las metáforas, podría traducirse en el acondicionador que te echas esa mañana en el pelo, convirtiendo ese rizo enredado en un precioso tirabuzón. El problema es que cerrar el círculo y por fin resolver una preocupación que te recluía del presente tampoco tiene por qué tratarse de un problema, o es que no da gusto por fin zanjar un tema? Un alto al fuego en una larga guerra o volver a casa después de un precioso viaje, siguiendo con las metáforas.

En este gráfico hay un sinfín de posibilidades, sin diferenciar los feos y bonitos, ni nada por el estilo. Las hay funciones tremendamente melancólicas, que recorren los valores negativos del eje x, tratando de arrastrar con ella a su función hermana hacia un destino mucho más catártico. Tampoco hay que hacer de menos el trabajo de la antítesis de estas funciones melancólicas: las funciones que dibujan un futuro antes de que la dichosa función del tiempo, a veces muy lenta en comparación con nuestros pensamientos, haya podido abrir ese hipotético camino.

Por otra parte, me dan ternura esas funciones del pensamiento que intentan despegar, e incluso lo llegan a hacer, pero con miedo de alejarse de su guía, su función hermana, la única función con un destino y ritmo constante, la función del tiempo. Estas funciones dibujan una onda que, cual pareja conflictiva pero con apego, se separa, mirando de reojo a la otra función, para así después volver corriendo a donde ella y fundirse en un abrazo hasta que una discusión los vuelve a separar.

Hay miles y miles de casos; es más, diría que hay alrededor de 8.000 millones, como mínimo, pero hay un tipo de función que me preocupa más de la cuenta. Además, me apena percibir que hay un número alto de estas, que encima no hace más que subir. Se trata de las funciones de pensamiento que no consiguen despegarse de la función del tiempo, hasta el punto de llegar a ser una, como cuando sucede una asistolia en un electrocardiograma. Personas (dejando por un momento de lado la metáfora) que parecen dejar su presencia en manos de otros, esperando que, no se, que otras funciones se metan en su gráfico y les empujen hacia nuevos caminos. Alguna vez habré dicho que estos son los más locos, pero más tarde acepté, hipócrita de mí, que también endiosaba a estos especímenes. Es que ¿para qué tratar de hallar x -es en funciones imposibles, cuando nos han regalado una guía implacable? Un verdadero regalo: el presente.

Es verdad que cuando un regalo maravilloso se vuelve el pan de cada día, pierde valor, pero también sería de loco no darle importancia a este eje mayor, robusto como ninguno, cosa que no hacen muchas funciones del pensamiento muy bailarinas. También es verdad que en el uso cotidiano de la matemática dos funciones no suelen poder trazar el mismo camino; puede que en algunos casos no haya sitio para las dos. ¿Cuál sería la solución? ¿Dos líneas paralelas? Que aburrido ¿no?, pudiendo ir hacia el negativo, hacer círculos, tirabuzones... cuadrados, quién sabe.

No suelo poner etiquetas, al menos a nadie que no sea yo, pero de verdad que encuentro molestas esas funciones que, queriendo, se entrometen en otros gráficos y, por lo tanto, en el camino de otras funciones del pensamiento. También a esas que, desde fuera, sin siquiera atreverse a bailar en el gráfico de otras funciones, se atreven a destruir al prójimo desde fuera, encima olvidando así su propio rumbo. No sabía que estaba tan de acuerdo en algo con don Quijote hasta que he leído el fragmento de hoy, y es que no tendría ninguna duda de la locura de alguien que busca colapsar los pensamientos de los demás, cuando todos vivimos con esta innata condición humana de poder divagar en nuestro mundo propio.

Por último en esta lista, están las funciones nómadas, que viajan, estas sí, de manera no solo consentida sino que agradable entre otros gráficos, trazando dibujos impensables para una única función del pensamiento. Diría que estas, dentro de esta locura de gráficos, son mis preferidas, y apostaría que no solo las mías, ya que son las heroínas de muchas otras funciones aburridas de su monotonía. Sin duda, estas funciones tan atrevidas y esperanzadoras son las que más bellamente enloquecen.

Tratando de pasar todas estas ideas por un embudo, diría que no hay gráfico que no sea excéntrico, loco, ya que me gustaría pensar que cada lector de este Índice de la Teoría Gráfica de la Locura se ha atrevido a hacer despegar su función del pensamiento, o se ha sentido representado en alguno de estos ejemplos. De ser así, estás aceptando reflejar algo tan complejo como tu vida en un mísero gráfico, ¿no es un poco loco? Y si has decidido aferrarte al eje X y no bailar entre gráficos ¿no es igual de loco no atreverse, al menos por una vez, a descubrir nuevos caminos?

Me parece complicado negar que todos estamos locos, de una manera bonita y fea a la vez, pues todos deseáramos haber trazado alguna función de una manera distinta, ya sea en nuestro propio gráfico como en el de alguien más, pero todos agradecemos habernos movido por puntos donde no teníamos previsto estar. Antes de dar este texto por acabado, creo que la locura empieza cuando uno puede decidir a dónde hace viajar su función del pensamiento. De no ser así, creo que uno no puede estar loco.

ARINTASUNAREN EROTASUNA

EGILEAK: MIKEL SAEZ, ASIER CABRIADA ETA AIMAR PIPAON

Erotuta zaudela diote.

Zergaitik egiten dugu lan bizitzeko?

Eta ez gara bizitzeko bizi

Zure lagunekin lehiatu nahi ez izateagatik

Zure balioa dirutan ez neurtzeagatik

Erotuta zaude

Sistemak ez die ero deitzen agindutakoa betetzen dutenei

Dudetan daudenei ero deitzen die

Pentsatzeak min egiten duelako

Eta desberdin pentsatzeak izutu egiten duelako

Eta ez bazaude erotuta?

Agian, esna zaude

Lo egitea nahiago duen mundu batean

Egia esateak erotu egiten bazaitu

Zer dio munduaz horrek?

